

TEKNOLOGIA BERRIAK. MCC, MU, Euskaltel, Goiena, Mankomunitatea eta Eusko Jaurlaritza dira bultzatzaileak

Informazioaren gizartea Debagoienan garatzeko hitzarmena sinatu dute

'e-debagoiena' proiektua euskal gizartearentzat erreferente bilakatzea da helburua

Erredakzioa | DOMOSTIA

Debagoiena informazioaren gizartearen sartzeari helburu duen *e-debagoiena* egitasmoa aurkeztu zuten atzo Leintz-Gatzagan.

Bi urtean zortzi proiektu gauzatu dira egitasmo honi esker: Debagoieneko enpresetako prozesuak digitalizatzeko *Cyberindustrialdeak*; egoitzak hainbat lekutan dituzten enpresei produktuak diseinatzeko *Discol*; enpresa txikiek eta erdi mailakoek sarean euren gunea izateko *Iparcom*; tokian tokiko administrazio zentroak herriartengana hurbiltzeko *e-administrazioa*; Debagoieneko herri guztietan banda zabaleko komunikazio sarea eratzeako *Sare proiektua*; irakaskuntzan erabiltzen diren bitartekoak aldatzeko *Hezkuntza XXI*; erabiltzaileei eurek nahi duten informazioa eskura jartzeko *Biblio XXI* eta Debagoieneko Interneteko ataria sortzeko *GoienaNet*.

19,5 milioi euro inguruko aurrekontua du *e-debagoiena* egitasmoak. Bere sorkuntzan Mondragon Unibertsitatea, Mondragon Korporazio Kooperatiba, Goiena, Debagoieneko Mankomunitatea, Eusko Jaurlaritza eta Euskaltelek hartu dute parte.

Egitasmo hauek guztiak sustatu, kontrolatu eta jarraitzeko *e-debagoiena* proiektuaren sortzaileak hiru batzordetan egituratu dira: *e-debagoiena* egitasmoa jarraituko du Erakunde Sustatzaileen Kontseiluak,



e-debagoiena egitasmoaren aurkezpenean, besteak beste, Oliveri, Agirreurreta eta Imaz izan ziren.

proiektua zabaltzeaz eta jarraitzeaz arduratuko da Zuzendaritza batzordea eta kostuak aurreikusi eta finantzabideak bilatuko ditu Proiektuak Kudeatzeko Batzordeak.

Egitasmoaren aurkezpenean, besteak beste, Mondragon Unibertsitateko errektore ohi Jaber Retegik hartu zuen parte, eta, bere esanetan, «teknologia berriak erabili nahi ditugu proiektu berriak egiteko, baina gure errealitatetik abiatuta».

Leintz-Gatzagako alkate Jose Ramon Agirreurretak *e-debagoiena* euskaraz erabilgarri izan dadila eskatu zien egitasmo honen bultzatzaileei, proiektu irekia izan dadila eta baseritarren parte-hartzea ziurta dadila.

Infaxio Oliverik, Mondragon Unibertsitateko errektoreak, egitasmo honek irakaskuntzan eragingo duela nabarmendu zuen. Bere hitzetan, «teknologia berriak irakaskuntza siste-

ma goitik behera eraldatzera behartuko baikaituzte».

Eusko Jaurlaritzako bozeramaile Josu Jon Imazek, berriz, aitzindaritzat jo zuen *e-debagoiena* egitasmoa eta Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak Aretxabaletako industrialdearentzako proiektu bat duela aurreratu zuen.

Herri guztietara azpiegiturak hedatzeaz eta enpresei laguntzeko hainbat aplikazio sortzeaz Euskaltel arduratuko da.

DATUAK

19,5 milioi
eurotako
aurrekontua du

e-debagoiena-ren bultzatzaileek egitasmo hau bi urtean gauzatzeari espero dute. Horretarako, 19,5 milioi euro gastatu beharko dituztela aurreikusten dute.

BU'LTZATZAILAK. Eusko Jaurlaritza, Mondragon Kooperatiba, Mondragon Unibertsitatea, Euskaltel, Goiena eta Debagoieneko Mankomunitatea.

AURREKONTUA. *e-debagoiena* egitasmoa gauzatzeko 19,5 milioi euro gastatu beharko dira: 15,2 milioi euro azpiegituren plan gidatzailean; 3,9 milioi euro aplikazio esperimentaletan; eta 0,4 milioi euro gestio eta laguntza gastuetan.

PROZESUA. Proiektua gauzatzeko lehen batzarra 2001eko uztailan egin ziren. Oinarrizko dokumentua, berriz, 2001eko abenduaren 13an sinatu zuten. Atzo, berriz, talde bultzatzaile guztien arteko hitzarmena sinatu zuten.

HELBURUAK. Debagoiena informazioaren gizartearen ahalik eta azkarren sar dadin eginahal publiko eta pribatuak koordinatzea eta uztartzea eta euskal gizarteari komunikazioaren gizartearen sartzeari komeni zaiola erakusteko egitasmoa erreferente bilakatzea.

ASTIALDIA. Ordutegiak betearaztea proposatu du

Taberna asko badira, baimenak neurri gabe ematea saihesteko ekimena aurkeztu du hirukoak

Erredakzioa | GASTEIZ

EAJ, EA eta EB-IUK Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari eskatu diote ikuskizun Publiko eta Dibertimenduzko Ekintzen Zuzendaritzaren bidez «lan plan-gintza» egiteko bi helburuok: tabernen ordutegia arautzen duen dekretua betearazteko eta taberna jartzeko «baimenak neurri gabe ematea saihesteko, batez ere, edaritegi larriki dauden guneetan».

EAJko Izaskun Bilbaoren hitzetan, «kontua ez da taberna ixtea, ordutegiei buruzko arautegia betearaztea baizik».

Hirukoaren proposamenak «babe osoa» eskaini die kalte-tuta dauden bizilagunei. Testuak onartu du herritarrek «arazo jasanezin eta onartezinak» pairatu eta «sarri askotan tratamendu medikuak behar izaten dituztela. Halaber, «ahalegin berezia» eskatu die udalei indarrean den arautegia bete dadin.



Tolosako Udala

IRAGARKIA

Gobernu Batzordeak 2002.eko martxoaren 4an egindako bilan honako proiektu honi hasierako onepena eman zion:

Kale Nagusia urbanizatzeko proiektua, Tolosako Udalak sustatutakoa.

Proiektua, interesatuek beren interes aldeko alegazio edo erreklamazioak aurkezteko, HAMABOST EGUN (iragarri honen azken argitaratzea egin eta biharamunetik kontatzen hasita) (endeuaurrean jarrita egongo da, Hirigintza Plana emendatu Erregeleinduko 141 artikulua eta Hirigintza Plangintza eta Kudeaketarako tresnak izapidetzeko ekarriaren 30eko Eusko Legebiltzararen 17/94 Legeko 7. artikulua xedatuaren arabera.

Iragarri hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Dario Vascon, Eguneron, Euskaldunon Egunkarian, eta Garari argitaratuko da.

Espedientea, inork aztertuta nahi badu, Gorosabel Zaharrek Hirigintza Bulegoan egongo da, alpermeneko epean. Alegazio edo erreklamazioak Alkateari zuzendu behar izango dira Udaleko Sarrera Erregistroan aurkeztu.

Tolosa, 2002ko martxoaren 13an.
ALKATEA.



Azpeitiko Udala

IRAGARKIA

Gaia: Azpeitiko Arau Osagarrien Arautegiko III.7 Kapitulua "Lurzoru Ez-Urbanizagarriari Izaera Orokorrez Aplikatzekoak Zailkion Xedapena eta Ordenantzak" eta III.8 Kapitulua "Landa Zonei Aplikatzekoak Zailkion Lurzoru Erabilerarako eta Eraikuntza Ordenantzak (D-I/D-II/D-III/D-IV) aitzatzeko plangintzarako itzupike, helburu eta interbide orokorrak onartzea.

Akordioa eman duen organua: Alkatezaren dekretuz 2002ko martxoaren 14an.

Jendureko erakustaldiko epea: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Azpeitiko Ediktu taulan eta El Diario Vasco, Deia, Egunkaria eta Gara egunkarietan argitaratu, host, argitalpen honetan azkena egin eta biharamunetik hasita hilabeteko epean.

Espedientea dagoen lekua: Udaleko Idazkaritzan.

Azpeitia, 2002ko martxoaren 14an.
Alkatea.

Zatiketa Iragarkia

MONDRAGON SISTEMAS DE INFORMACION S. KOOP.

(Sozietate zatitua)

LKS S. KOOP.

(Sozietate onuraduna)

Euskadiko Kooperatiben gainean ekainaren 24an onartutako 4/1993 Legeko 79.6 eta 84.4 artikuluetan xedatuaren arabera, jakinarazten da ezen MONDRAGON SISTEMAS DE INFORMACION S. KOOP.ek eta LKS S. KOOP.ek, 2001eko martxoaren 15ean, zineak bere egoitzan egindako batzar nagusietan eta lege eskutitako gehiengoekin, erabaki dutela zatitze partziala egitea, eta honen arabera, MONDRAGON SISTEMAS DE INFORMACION S. KOOP.ek, desagertu gabe, E-Know eta Informazio Sistemen alometa jarduerak osatzen dituzten bazkideen ondare zatia banaratu du, zertarako eta, osorik LKS S. Koop. sozietateari aitzatzeko, hala nola bazkideak hartara atxikitzeko, betiere bi sozietateko administrazioalek idatzi eta izenpetutako zatitzaile proiektuari jarraituz, zein bazkideen eskura jarri baita, eta Euskadiko Kooperatiben Erregistroan gorte baitzen 2002ko otsailaren 27an.

Jakinarazten da ezen zatiletan esku hartu duten kooperatiba biotako edozeinaren hartzeokunak eskubideak dutela haren aurka egiteko, bat-egitearen gaineko azken iragarria agertu eta hilabeteko epean, betiere aipatu legegiko 81. artikulua dionari jarraituz.

Arazaten, 2002ko martxoaren 20an.
LKS S. KOOP.eko eta MONDRAGON SISTEMAS DE INFORMACION S. KOOP.eko presidentek.

Gipuzkoa

DEBAGOIENA Bailara guztian zuntz optikoa ezartzeko asmoa dute 2003. urterako, esperientzia piloto baten eszenatoki bilakatuz. Informazioaren gizartea garatzen datza helburua, erakunde publiko eta pribatuaren arteko elkarlanean; 80.000 herritarrek GoienaNet ataria erabili ahal izango dute.

Goretti Aldalur Leintz-Gatzaga

IRAULTZA TEKNOLOGIKOAREN atarian Debagoiena esperientzia pilotu baten eszenatoki bihurtuko da, atzo Leintz Gatzagan erakunde publiko eta pribatuak sinaturiko hitzarmenari esker. Proiektuaren helburu nagusia eskualdean informazioaren gizartea garatzea litzateke, eta herritarako bi helburu nagusiri helduko zaie: batetik, banda zabaleko komunikazio sarea zabalduko da bailara osatzen duten herri guztiek sarbidea izan dezaten sare horretan eta, bestetik, herritarrengan sarearen erabilpena bermatuko da.

Leintz-Gatzagako Gatzaren Ekomuseoan bildu ziren atzo hitzarmena sinatzeko Inaxio Oliveri Mondragon Unibertsitateko errektorea, Javier Retegi aurreko errektorea, Alberto Garcia Euskalteko zuzendari nagusia, Jesus Catania MCCo arduraduna, Jose Ramon Agirreurreta Leintz Gatzagako alkatea, Josu Jon Imaz Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Industria sailburua, Bitoriano Gallastegi Debagoienako mankomunitateko arduraduna eta Estepan Plazaola Goiena komunikazio taldeko lehendakaria.

Proiektua 2001eko uztailaren hasi zen bailarako 80.000 herritarrek gizarte aurrerakoi batera bideratzeko asmoz, euskal kultura eta nortasunik arriskuan jarri gabe. Bi urtetan eskualde osoan jarriko da banda zabaleko azpiegitura osoa, eta aplikazioen esperientzia bukatutzat emango da, gero formula bera gainontzeko bailaretara pasako delarik, aurreikuspenen arabera.

Atzoko aurrekontuaren adieraziz, zuten, aurrekontuak dagokionez, azpiegituraren plan gidatzailea 15,2 milioi euro kostako dira, aplikazio esperimentalak 3,9 milioi euro, eta gestio eta laguntza kostuak, berriz, 0,4 milioi euro. Finantzazioaren %75a erakunde pribatuaren eskutik joango da, gainontzekoa erakunde publikoek jarriko dutelarik; «e-debagoiena» proiektuan, esan zuen Retegi, azpimarratzekoa da erakunde publikoen eta pribatuaren arteko elkarlana eta bestalde, unibertsitatearen eta gizartearen arteko harreman estuaren adierazgarri da, dudarik gabek.

Udalerrri guztien arteko elkarlana koordinatzeko eta azpiegitura mar txan jarri ahal izateko, gestio organo ezberdinak sortu dira. Alde batetik, urtean bi edo hiru aldiz bilduko den entitate suspertzaileen kontseilua, Debagoienako zuzendari batzordea hileroko bilera izango duena, eta proiektu bakoitzaren gestio batzordea.

Javier Retegiren esanetan, «modernitatea eta etorkizuna aurrerapen sozialaren tresnak izan behar dute, eta gure jarreraren baitan dago besteen interesen ordezkatzaile izan edo izakera propioko protagonista».

Bestalde, Josu Jon Imazek adierazi zuen informazioaren gizartea errealitate hutsa dela dagoeneko: «%70ak Internetari jarri du etxeetan, errepresen zer esanik ez, beraz ez gara etorkizunari buruz arri».

Duela hilabete eskas aurkeztu zuen Juan Jose Ibarretxe «Euskadi Informazioaren Gizartean» egitasmoa eta e-debagoiena proiektua bete-betean sartzen da plan horren helburuetan. «Gure asmoetako bat gure digitalak bultzatzea da, denon artean zein ondorio ateratzen diren aztertu, eta gero, esperientzia hori zabaltzea», esan zuen sailburuak.

Informazioaren gizartea garatzeko lehen urratsak



Inaxio Oliveri, Jose Ramon Agirreurreta, Josu Jon Imaz eta Bitoriano Gallastegi gainontzeko ordezkariak batera sinatzeko unea. Ekitaldirako Leintz-Gatzagako Gatzaren Ekomuseoan hautatu zuten eszenatokitza. Ruben Plaza

«Geure garapenean protagonista izan behar dugu»

Javier Retegi
Proiektuaren bultzatzailea

«Besteak beste, e-debagoiena proiektuari euskaraz hitz egin dezala eskatzen diot»

Jose Ramon Agirreurreta
Leintz-Gatzagako alkatea

«Helburua gure digital bat bultzatu eta ondorioak aztertu ondoren, eredu hori adibide gisa hartu eta zabaltzea litzateke»

Josu Jon Imaz
Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua

GoienaNet, atari informatikoa

SAREKO ZERBITZU guztiak eskuratzeko aukera emango die debagoienar guztiei GoienaNet atari informatikoa. Bertako Internet erabiltzaileentzako baliagarriak izan daitezkeen eduki mota guztiak eskainiko ditu atariak, etengabe berrituz joango direlarik. Atariaren eskaintza osoa banda zabaleko hariaren bidez garatuko da eta epe jakinik ez dagoen arren, e-debagoienak abian dituen proiektuetan lehena gauzatzen haxe izango da. Helburuen artean, eskualdean informazio subjektu izateaz gain, euskarari aukera zabalgia ematea litzateke, modernotasun inguru bateko hizkuntza erreferentzia izan dadin.

Enpresen dagokionez, «Cyberindustrialdeak», «Discol» edo «Iparcom» aplikazio esperimentalak definitu dituzte. Lehenengoak, gaur egungo industrialdeen baliokide elektronikoa da, eta «Discol» en asmoa beharrek sakontzea da, elkarren artean urrun dauden diseinu interaktiboak sortzen dituzten datuen transferentziak eta interakzioak aurre egiteko. «Iparcom» partzialki ezarria dago jada, eta eskualdera egokitzea falta da. Baina proiektuak administrazio eta hezkuntza mailan ere badu aplikazioak. Erakundeen heinean, aplikazio hauek sendotu eta berriak abian jarriko dira.



Debagoiena bailarako zenbait alkate atzoko ekitaldian. Ruben Plaza

Asmoa bailarako 80.000 herritarrek gizarte aurrerakoi batera bideratzea da

Finantzazioa Proiektuaren aurrekontuaren %75a erakunde pribatuaren eskutik jarriko da

Kablea ikuiluetaraino

LEINTZ-GATZAGAKO alkatea, Jose Ramon Agirreurreta, banda zabaleko kableak simaur usaina izan dadila eskatu zuen atzoko hitzarmen ekitaldian. «Gatzaga hari elektrikoarekin kableatu genuenean simaur usaina zerion hariari. Orain, kableatu honi ere horixe eskatzen diot: gure baserrietaraino, gure ikuiluetaraino sar dadila, gure premietara egokituz». Honetaz gain, eta beste hizkuntzetan lan egin arren, e-debagoiena proiektua irekia izatea eta euskaraz hitz egin dezala ere eskatu zuen alkate jaunak.

Proiektu pilotu honi esker, bailara honek atek irekitzea eta etorkizunari aurre hartzea lortu du, «herri txikia izateak ez baitu esan nahi ezjakina izatea».

Banda zabalaren azpiegitura plana

1. Epe laburrean eraikiko da Oso azkar eraikiko da banda zabaleko telekomunikazio sarea. Asmoa da 2003. urterako azpiegitura lan guztiak amaitzea.

2. Bailarako herri guztietara Debagoiena osoan zabalduko da, baita Leintz-Gatzaga, Elgeta eta Antzuola bezalako herri txikietan ere nahiz eta iristea zailagoa izan.

3. Kalitatezko azpiegitura Banda zabaleko kablea ahalik eta herriar gehiengana helduko da eta horretarako kalitatea oso kontutan izango da. Herri txikiak hasi eta handienara, komunikabide sare hori lotuta geratuko dira.

4. Inpaktu txikia Azpiegitura lanek ahalik eta eragozpen gutxienez sor ditzaten, udalak eta operadoreak elkarlanean arituko dira, proiektu bakarra egiteko.

5. Komunikazio plana Debagoiena bailarako herritarrek azpiegitura lanen berri izan dezaten, informazio zehatza zabaltzeko ahalagintza berezia egingo da.